

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZIGOITIKO UDALA****Enkante bidez bizitegirako hiri-ondasun higiezin bat besterentzeko lizitazioa**

2026ko irailaren 2ko Alkatetzaren 2026-0371 Ebazpenarekin bat etorritz, iragarki honen bidez bizitegirako hiri-ondasun higiezin bat besterentzeko lizitazio-deialdia egiten da, enkante bidez, honako datu hauen arabera:

1. Lehiaketaren xedea: ondasu higiezin honen besterentzea:

Katastroko erreferentzia	18-1-689-1-1
Kokapena	Apodakako Lugorri, 2 (1. poligonoko 689 katastroko lurzatia)
Mota	Bizitegirako hiri-lurzorua
Azalera	1.082m ² (katastroan) eta 1.072,99 m ² (erregistroan)
Helmuga	Etxebizitza familiabakar isolatu bat eta erabilera bateragarriak eraikitzeko
Mugak	Iparraldea: 1. Poligonoko 718 katastro-partzela Hegoaldea: S-1 sektoreko Plan Partzialeko 7. Partzela (1. poligonoko 690 katastro-partzela) Ekialdea: komunikazio sistema lokala (Lugorri kalea) Mendebaldea: 1. poligonoko 87 katastro-lursaila
Eskuratze-titulua	2004ko urriaren 27ko 573 zk.ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez behin betiko onartutako Apodakako S-1 sektoreko Plan Partzialaren Birpartzelazio-Proiektua Udal honi esleitzeagatik
Kargak	Karga ezagunik gabe

2. Eskaintzak aurkezteko epea 60 egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita (2026ko azaroaren 9ra arte).

Aurkezteko lekua: presentziala eta elektronikoa.

Aurkezteko lekua:

1) Bulegoa: Zigoitiko Udaletxea.

2) Helbidea: Bengolarra, 1.

3) Herria eta posta kodea: 01138 Ondategi.

4) Helbide elektronikoa: (<https://www.zigoitia.eus/eu/udala/kontratugilearen-profila>).

3. Eskaintzak Irekitze-ekitaldia 2026ko azaroaren 13an izango da, 10:00etan, Udaletxean.

4. Baldintza-agiria interesdunen eskura dago udal-bulegoetaneta kontratatzailearen profilean ere udalaren web-orrian (<https://www.zigoitia.eus/eu/udala/kontratugilearen-profila>).

Ondategin, 2026ko irailaren 3an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA